Bestelako Xedapenak

EKONOMIA ETA OGASUN SAILA
INDUSTRIA, BERRIKUNTZA,
MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

5481

294/2010 DEKRETUA, azaroaren 9koa, Energiaren Euskal Erakundeari Micronizados Naturales SA sozietatearen kapital-gehikuntzan parte hartzeko baimena ematen diona.

Euskadiko Ondareari buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 6ko 2/2007 Legegintza Dekretuko 109.1 artikuluaren arabera, honako hauek osatzen dute enpresa-ondarea: merkataritza-sozietateak ordezkatzen dituzten baloreek; obligazioek eta akzioak bihur daitezkeen obligazioek; lehentasunezko harpidetza-eskubideek; aukeren finantza-kontratuek; finantza-trukeko kontratuek; partaidetza-kredituek eta bigarren mailako merkatu antolatuetan negoziatzekoak diren beste batzuek, baldin eta lege honetako 1. artikuluan jasotako erakundeetarako eskubideak ordezkatzen badituzte.

Euskadiko Ondareari buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 6ko 2/2007 Legegintza Dekretuak honako hau ezartzen du 110.1 artikuluan: enpresa-ondarea osatzen duten ondasunak eta eskubideak eskuratzeko, aurretiaz, Jaurlaritzaren Kontseiluaren baimena beharko da, dekretu bidez emana, eta horretarako proposamena, berriz, ondareari buruzko eskumenak dituen sailaren buruak eta, zuzenean nahiz bitarteko erakunde baten bidez, sozietatea loturik duen edo loturik izango duen sailaren buruak egin beharko dute, biek batera. Dekretua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, eta ematen den egunetik aurrera izango du indarra.

Micronizados Naturales SA sozietatearen helburu sozialak honako hauek dira: industrian karga eta/edo pigmentu gisa erabili litezkeen industria-harriak eta -mineralak meatzaritzan aprobetxatzea, granulometriaz mikronizatu eta sailkatzea eta merkaturatzea.

2010eko uztailaren 22an, Energiaren Euskal Erakundearen Zuzendaritza Batzordeak zera erabaki zuen: Micronizados Naturales SA sozietatearen kapital-gehikuntzan, Energiaren Euskal Erakundeak akzioak harpidetzeko baimena eskatzea Eusko Jaurlaritzari. Harpidetza hori 320.000 eurokoa izango da, hau da, gehitutako kapital osoaren (640.000 euro) % 50; hartara, EEEk egun sozietate horretan duen % 50eko partaidetzari eutsiko lioke. Nolanahi ere, eragiketa hori egiteko, goragoko paragrafoetan esan denez, Jaurlaritzaren Kontseiluaren baimena behar da.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA
Y HACIENDA
DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,
INNOVACIÓN, COMERCIO Y TURISMO

5481

DECRETO 294/2010, de 9 de noviembre, por el que se autoriza al Ente Vasco de la Energía la toma de participación en la ampliación de capital de la Sociedad Micronizados Naturales, S.A.

El artículo 109.1 del Decreto Legislativo 2/2007, de 6 de noviembre, de aprobación del Texto Refundido de la Ley del Patrimonio de Euskadi, establece que constituyen el patrimonio empresarial los valores representativos del capital de sociedades mercantiles, las obligaciones y obligaciones convertibles en acciones, los derechos de suscripción preferente, los contratos financieros de opción, los contratos de permuta financiera. Los créditos participativos y otros susceptibles de ser negociados en mercados secundarios organizados, que sean representativos de derechos para las entidades comprendidas en el artículo 1 de esta Ley.

El artículo 110.1 del Decreto Legislativo 2/2007, de 6 de noviembre, de aprobación del Texto Refundido de la Ley del Patrimonio de Euskadi, establece que la adquisición de bienes y derechos integrantes del patrimonio empresarial requiere autorización previa del Consejo de Gobierno, por decreto, a propuesta conjunta del consejero o consejera competente en materia de patrimonio y del consejero o consejera del departamento al que, directamente o a través de un ente instrumental, se encuentre o vaya a encontrarse vinculada la sociedad. El decreto será publicado en el Boletín Oficial del País Vasco, sin perjuicio de su eficacia desde la fecha en que se dicte.

La Sociedad Micronizados Naturales, S.A. tiene por objeto social el aprovechamiento minero, la micronización y clasificación granulométrica, y la comercialización de rocas y minerales industriales susceptibles de ser utilizados como cargas y/o pigmentos por la industria.

Habiendo adoptado el Consejo de Dirección del Ente Vasco de la Energía, con fecha 22 de julio de 2010, el acuerdo de dirigirse al Gobierno Vasco para que conceda autorización al Ente Vasco de la Energía a la suscripción de acciones en la ampliación de capital que llevará a cabo la sociedad Micronizados Naturales, S.A. por importe de 320.000 euros equivalente al 50% del total de capital ampliado de 640.000 euros, tras lo cual el EVE mantendrá su participación actual del 50% en la citada sociedad, y requiriendo, de conformidad a lo expuesto en los párrafos anteriores, de autorización del Consejo de Gobierno.

Micronizados Naturales SAren Akziodunen Batzarrak, 2010eko urriaren 4an, sozietatearen kapitala 638.419,38 euroan gehitzea erabaki zuen.

Ondorioz, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuak eta Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuak proposatuta, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2010eko azaroaren 9an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

Artikulu bakarra.– Energiaren Euskal Erakundeari Micronizados Naturales SA sozietatearen kapital-gehikuntzan parte hartzeko baimena ematea, hirurehun eta hemeretzi mila berrehun eta bederatzi euro eta hirurogeita bederatzi zentimoko (319.209,69) zenbatekoz, hau da, gehikuntza osoaren % 50. Hortaz, kapital-gehikuntza, guztira, seiehun eta hogeita hamazortzi mila laurehun eta hemeretzi euro eta hogeita hamazortzi zentimokoa (638.419,38) izango da. Eragiketa horren ondorioz, Energiaren Euskal Erakundeak sozietate horretan duen % 50eko partaidetzari eutsiko dio.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau onartzen den egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2010eko azaroaren 9an.

Lehendakaria,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

Ekonomia eta Ogasuneko sailburua,
CARLOS AGUIRRE ARANA.

Industria, Berrikuntza, Merkataritza
eta Turismoko sailburua,
BERNABÉ UNDA BARTUREN.

La Junta de Accionistas de la sociedad Micronizados Naturales, S.A. acordó con fecha 4 de octubre de 2010 ampliar el capital social en 638.419,38 euros.

En su virtud, a propuesta de los Consejeros de Economía y Hacienda y de Industria, Innovación, Comercio y Turismo, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su reunión celebrada el día 9 de noviembre de 2010,

DISPONGO:

Artículo único.– Se autoriza al Ente Vasco de la Energía la toma de participación en la ampliación de capital de la Sociedad Micronizados Naturales, S.A. con trescientos diecinueve mil doscientos nueve euros con sesenta y nueve céntimos (319.209,69) equivalente al 50% de la misma, que tendrá un importe total de seiscientos treinta y ocho mil cuatrocientos diecinueve euros con treinta y ocho céntimos (638.419,38). Tras esta operación la participación del Ente Vasco de la Energía en la sociedad se mantendrá en el 50%.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto surtirá efectos el mismo día de su aprobación.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 9 de noviembre de 2010.

El Lehendakari,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

El Consejero de Economía y Hacienda,
CARLOS AGUIRRE ARANA.

El Consejero de Industria, Innovación,
Comercio y Turismo,
BERNABÉ UNDA BARTUREN.